

## 'Liburu-e' bilduma, liburu elektronikoak doan lortzeko aukera baino askoz gehiago

**Literatura unibertsaleko 58 ale hautatu eta euskal literaturako 191 lan klasiko jaso ditu egitasmoak**

Hizkuntza handi gehienetan, liburu elektroniko ugari eskura daitezke dohainik internet bitartez, horretara bideratutako atari eta zerbitzuetan. Egile eskubideak iraungita dituzten klasikoak dira batik bat. Hedapen urriagoko hizkuntzaren batzuk ere lortu dute tarte bat horrelako ekimenetan: Gutenberg Project egitasmo aitzindari eta erraldoiean, esaterako, utzi dute arrastotxoak, besteak beste, kalatanak, galizierak, bretoierak edota gaelikoak.

Euskara hasi da azkenean orain arte jorratu gabe zeukan alorra lantzen, eta etxeko egitasmo baten bitartez egin ditu aurreneko urratsak: Armiama proiektuaren baitan hain zuzen ere. Hala, duela hamarkada bat Susa argitaletxeak abian jarri zuen literaturaren inguruko atariaren zati gisara sortu da 'Liburu elektronikoak' atala.

248 liburu elektroniko edo e-book deskarga daitezke dohainik bertan, irakurgailu elektronikoetara egokitutako e-pub eta pdf formatuetan. Irakurgailurik ez daukanak ere balia dezake eskaintza zabala: formatu biak ordenagailu arruntetan irakur daitezke, horretarako behar diren programak, doakoak horiek ere, instalatuz gero.

'Liburu-e' bilduma bi liburutegik elikatzen dute: euskal literaturako klasikoei emanak eta literatura unibertsaleko 58 ale hautatuz osatuak. Gehienak, 191, euskal literaturako klasikoak dira, XVI. mendetik XX. mendera bitartekoak. Aurrenekoa, noski, Bernard Etxepareren 'Linguae Vasconum primitiae' a; azkena, berriz, euskaraz inoitz idatzi izan den nobelarik polemikoenetako bat: Jon Miranderen 'Haur besoetakoa', 1959.ean amaitua baina hamaika urtez editorerik gabe egin zena, harik eta 1970.ean Lur-Kriseiluk argitaratu zuen arte.

Beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekarritako harribitxi gehienek sorburua 1990az geroztik abian den 'Literatura Unibertsala' ekimena da baina, bilduma orekatze eta osatze aldera, zenbait argitaletxek euren kabuz argitaratutako itzulpenak ere hartu dira aintzat. Guztira, besteak beste euskal itzultzaileen maila bikainaren erakusle ere badiren lan horietako 58 hautatu dituzte, oraingoz, irakurleen esku jartzeko. Aurrenekoa, Juan Garzia Garmendiak 2002. urtean euskaratutako Shakespeareren 'Hamlet' (1599). Azkena, Evelyn Waughn britainiarraren 'Dickens atsegin zuen gizona' (1933), Juan Mari Mendizabalek euskaratua eta Erein etxeak 1995.ean argitaratua. Bi horien bitartean, lan erabat irakurgarri osatutako bilduma bikaina, kontu handiz hautatutako liburuz osatua.

Ekimena ez da baina mugatu hainbat kasutan lehendik ere bertsio digital arruntagoan eskuragarri zeuden liburuak berrantolatu, maketatu eta irakurgailuetarako formatu estandarretara eramatera. Literaturaren inguruko informazioz gainezka dagoen Armiarma amaraunean hartu duenez osatu, irakurleak liburu soila baino askoz gehiago jasoko du. Bilaketarako eta deskargarako erabili behar den web orrian eta dokumentuan bertan baditu Armiarmaren beste atal batzuetara eramango duten estekak, horien bitartez aurki ditzan autoreari buruzko xehetasunak, liburuari buruzko datuak, kritikak eta beste hainbat jakingarri.